



G 3769591

TA
CO
TA
BILA
etroa
IA,
L
CO
I

I. ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Izena

Izaera pribatuko irakaskuntza-fundazio hau
"OIARTZO, Batxilergo Ikastola Fundazioa" izenarekin
sortzen da.

2. artikulua. Helbidea

Fundazioaren legezko helbidea Orereta-Errente-
rian dago, Zamalbide auzoko Belabaratz baserrian.

3. artikulua. Araubide juridikoa

Estatutu hauek eta aplikatzekoak diren legezko
gainontzeko xedapenen arabera jardungo du Fundazioak.

Fundazioa eta Udalen arteko harremanetarako markoa, elkarlanerako hitzarmenen bitartez arautuko da.

4. artikulua. Indarraldia

Fundazioaren iraupenak ez du mugarik, sorreran agindu zaizkion helburuak betetzen dituen bitartean.


5. Lurralde-eremua

Fundazioaren lurralde-eremua Oartsoaldeko udalerrietara zabalduko da, funtsez.

6. artikulua. Helburuak

Fundazioak hurrengo helburuak ditu:

16 eta 19 urteen bitarteko ikasleentzat, hezkuntza-mailari dagokion hezkuntza-jarduera osotasunez garatzea bere ziklo eta mota guztietan,



G 3769592 ITZA CO
ETA
SA
03

jakinturia zein heziketako adar guztietan. Eskolaz kanpoko eta elkarrekin loturiko jarduerak ere gauzatzeaz gain, eskola-zerbitzu osagarriak eta hezkuntza-jarduera errazten duten beste guztiak ere eskainiko ditu.

Fundazioak euskaraz gauzatuko du ikasleen hezkuntza, bere helburuetako bat baita ikasle eta guraso guztiei ez ezik gizarte osoari ere euskal kultura osoaren igorpena bermatu eta bultzatzea. Irakaskuntza-jardueran inongo irabazi-asmorik ez du Fundazioak.

Ikasleak osotasunez prestatzea, ikasgaien alorrean ez ezik, haien nortasuna garatzean ere, pertsona aske eta arduradun izan daitezen.

II. ANTOLAMENDUA

7. artikulua. Gobernu-organoak

Oartsoaldeko Batxilergo Ikastola Fundazioko gobernu, administrazio eta zuzendaritza hurrengo organoen eskuduntza izango dira:


a) Patronatua

8. artikulua. Patronatua

Patronatuak berez edo Lehendakariaren bitartez edukiko du legezko ordezkaritza, eta Fundazioaren nortasun juridikoa kolegiaturik agertuko du, zuzendaritza, gestio eta egikaritzan ahalmen osoz. Honela osatuko da Patronatua:

a) Lau kide, sortzaileen aldetik:

- 3, "Orereta" ikastolatik



G 3769593

- 1, "Haurtzaro" ikastolatik

horietatik bat, Lehendakaria.

9. artikulua. Kideak izendatzea

Patronatuaosatzen duten kideak honela izendatuko dira:

- a) Berari dagozkion ordezkariak izendatuko ditu ikastola bakoitzak.

10. artikulua. Karguaren ezaugarriak

Patronatuko kideak doan arituko dira karguan. Halaz ere, eginkizun honek eragiten dizkien gastuak ordaindu egingo zaizkie, behar bezala justifikatuz gero.

11. artikulua. Karguaren indarraldia

Patronaturako hautatuak izan diren kideek hiru urtez beteko dute postua, behin bakarrik berrautatuak gerta daitezkeelarik.

12. artikulua. Kargugabetzea

Patronatuko kideak kargugabetuak izango dira hurrengo kasuetan:

- a) Heriotza, ezgaitasun, gaitasungabetze edota elkarrezintasunik gertatzekotan.
- b) Izendatuak gertatzeko zuten kargua betetzeari utzi diotelako.
- c) Berariz uko egiteagatik; kargugabetze hau, ordezkariak onartuz gero bakarrik gauzatuko da.
- d) Kargutik kentzeko erabakiaren ondorioz,



G 3769594

Fundazioarekin zituen betebeharrak larriki ez betetzearren edo moralaren nahiz ospe onaren kontra aritzeagatik. Erabakia Patronatuak hartuko du, Batzorde Beteazleak eginiko proposamenez.

13. artikulua. Hutsuneak betetzea

Arauzko indarraldia bukatu aurretik gertatzen diren hutsuneak, hasierako izendapenean bezala beteko dira.

14. artikulua. Kargua onartzea


Bere eginkizunetan hasteko, Fundazioko gobernu-organoetako titularrek izendapena berariz onartu beharko dute.

III. FUNTZIONAMENDUA

15. artikulua. Patronatuaren eskuduntzak

Hurrengoak dira Patronatuaren eskuduntzak:

- a) Estatutuak onetsi eta aldatzea
- b) Hainbat erakunderekin elkarlanean jarduteko hitzarmenak onestea.
- c) Aurrekontua, kitapena eta kontu-egoera onestea.
- d) Ikastegiko Urteko Plana onestea.
- e) Era guztietako ondasunak eskuratu, eduki eta inorenganatzea, obligazioak hartu eta ekintzak egikaritzea.
- f) Batzordeko kideen kargu-aldaketak erabakitzea, behar bezalako zergatia baldin badago.
- g) Ikasleak onartzea.



G 3769595

- h) Sari eta zehapenei dagokienez, beharrezkoak diren erabakiak hartzea.

- i) Fundazioaren helburuak bete daitezzen zaintzea.

- j) Agindu zaion eginkizun soziala hobeki bete dezan, ikastegiaren jarduera zuzenari legokiokeen beste edozein,

16. artikulua. Eginkizunak eskuordetzea

Legezko eragin guztietarako, bere eginkizun batzuk edo denak Patronatuko kide baten esku utzi ahal izango ditu Lehendakariak, eskuarki Zuzendari-Gerentearenean utziko baditu ere.

17. artikulua. Lehendakariaren eskuduntzak

Estatutu hauetako 15. artikuluan xedatutakoari
utzi gabe, Fundazioko Lehendakariari dagozkio
hurrengo eskuduntzak:


- a) Patronatuaren ordezkaritza noiznahi agertzea.
- b) Bileretara dei egin eta haien buru izatea,
eztabaidak zuzendu eta antolatuz.
- c) Larrialdiko kasuetan, bidezkoak diren neurriak
hartzea, bereganaturiko eskuduntza berez
dagokion gobernu-organoari berehala jakinara-
ziz.

18. artikulua. Lehendakariordea

Bertako kideen artetik Lehendakariordea
izendatuko du Batzordeak.

19. artikulua. Lehendakariordearen eskuduntzak

Lehendakariordeari Lehendakariaren ordezkio



G 3769596

aritzea dagokio, hura ez denean edo gaixo dagoenean.

20. artikulua. Diruzaina.

Bertako kideen artetik Diruzaina
izendatuko du Batzordeak.

21. artikulua. Idazkaria

Bere kideen artetik Batzordeak idazkari-lanetan
arituko den pertsona hautatuko du.

22. artikulua. Idazkariaren eginkizunak

Hurrengo eginkizunak ditu Idazkariak:

a) Gobernu-organoek egiten dituzten bileretako

aktak idaztea.

- b) Bidezkoa denean eta hartarako berariz deitzen zaionean, erabakien egiaztagiria egitea.
- c) Instituzioko liburu, dokumentu eta korrespondentzia zaintzea.


23. artikulua. Bilera-araubidea

Bilera-araubidea hurrengo oinarrien arabera izango da:

- a) Hilean behin, gutxienez, eta Lehendakariak agindu nahiz organoko kideen laurdenak hala eskatzen duenean egingo du bilera Patronatuak.

24. artikulua. Deialdia

Deialdia interesatuek jaso beharko dute bilera egin baino 48 ordu lehenago gutxienez eta bertan agertuko dira jorratu beharreko gaiak.



G 3769597

TA
2
A
SAILA
registro
IA,
AL
eco

25. artikulua. Bertaratuen quorum-a

Bilera balioz egin dadin, Batzordeko kideen herenak gutxienez bertan izan beharko du.

26. artikulua. Erabakiak hartzea

Erabakiak balioz hartuko dira bertaratu direnen gehiengo soilarekin.

27. artikulua. Kalitatezko botoa

Hainbana kasuan, Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

28. artikulua. Akta

Bilera guzti-guztietako akta idatziko da Idazkariak daukan liburuan. Akta hori irakurri ondoren, bertaratuen onspena jasotzera aurkeztuko da ekitaldi berean.

IV. ARAUBIDE EKONOMIKOA

29. artikulua. Ondarea

Berarizko helburuak betetzeari dagokion Fundazioaren ondarea hurrengo ondasunek osatuko dute:

- a) 2.500.000 pztako. sorrerazko fondoak.
- b) Etorkizunean, zuzenbidez onarturiko bideetako batez Fundazioak eskura ditzakeen era guztietako ondasun eta eskubideak, baldin eta Patronatuak sorrerazko ondarea gehitzekotzat hartzen baditu.

30. artikulua. Baliabideak



G 3769598

Bere helburuak betetzeko, hurrengo baliabideak izango ditu Fundazioak:

- a) Era guztietako dirutako laguntzak hala nola emakidak, diru-laguntzak, maileguak eta, partikular edo zeinahi motatako erakunde eta elkarteetatik, zuzen nahiz zeharka, jasoko lituzkeen kopuruak.
- b) Sorrerazko kapitaletik letozkeen frutu, errenta edota interesak.
- c) Egotz lekiokkeen beste zeinahi.

31. artikulua. Ekonomi hitzarmena

Fundazioa behar bezala egokitzeke egindako inbertsioak eta sorrerazko ekarpen ekonomikoak,

ondoren adierazten den koefizientearen arabera
arautuko dira:

- Orereta ikastola: aurrekontuaren 3/4
- Haurtzaro ikastola: aurrekontuaren 1/4



32. artikulua. Hasierako lan-plangintza

Oiartzo, Batxilergo Ikastolari dagokion hasierako lan-plangintza, ikastola bakoitzetik datorren irakasleen kopurua kontutan izanik egingo da, ratioa hurrengoa izaki:

- Orereta ikastola: irakasleen 3/4
- Haurtzaro ikastola: irakasleen 1/4

Lan-plangintza honetako irakasle bakoitzak bere ikasgaiari dagozkion lanbide-eskakizunak bete beharko ditu.

33. artikulua. Aurrekontua



G 3769599

Urtearekin bat datorren ekitaldi ekonomikorako Aurrekontua eratuko du Patronatuak aurreko urteko azken hiruhilekoan, bertan aurreikus daitezkeen gastuak eta sarrerak kontuan hartuko direlarik.

34. artikulua. Kontuak

Urtero ere, urtarrilean, Patronatuak Kontu-Egoera idatziko du; agiri horretan, aurreko ekitaldi-ko fondo-inbertsioa agertuko da, kontzeptu guztiengatik jasoriko diru-kopuruak xehekapenez adierazirik.

35. artikulua. Fondoak erabiltzea

Fundazioko fondoak erabiltzeko Lehendakariaren --edo, honek eskuordeturik-- sinadura derrigorrezkoa izango da.

36. artikulua. Superabita

Ikastolari berez dagozkion zerbitzuek ekitaldi-
ren batean etekin ekonomikorik sortuko balute, hobari
horiek instalakuntzak hobetzera edota Patronatuak
bidezko jotzen dituen beste helburuetara bideratuko
lirateke. Horretarako erreserba-fondo bat sor liteke.

37. artikulua. Fiskalizazio ekonomikoa

Fundazioaren gastu eta sarreraren fiskalizazio
ekonomikoa kanpoko ikuskaritzen bitartez egiaztatuko
da urtero, eta eragiketaren berri Patronatuari emango
zaio.

38. artikulua. Fondo-Gordailua

Lehendakariaren --edo, honek eskuordeturik,
Lehendakariordearen-- zaintzapean, fondo erabilga-
rriak kontu korrante edo banketxekoetan kokatuko
dira, Patronatuak izendatzen dituen erakundeetan.



G 3769600

MAILA

20

39. artikulua. Diruzaina

Bertako kideen artetik diruzain bat izendatuko du Patronatuak.

V. PERTSONALA

40. artikulua. Pertsonal-premiak

Behar bezala jarduteko adinako pertsonala izango du ikastolak; horren kopurua, kategoria eta eginkizunak, Patronatuak onetsiko duen plantilan zehaztuko dira.

Ikastolen Hitzarmen Kolektiboaren bitartez arautuko dira langileak.

IV. ZERBITZUA EMATEA

41. artikulua. Printzipio orokorrak

Eskaintzen diren zerbitzuak, xedaturiko onarpen-baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek jaso ahal izango dituzte, arrazoi sozial, erlijioso edo politikoengatik inolako diskriminaziorik nozitu gabe.

42. artikulua. Zerbitzuak arautzea

Ikastolako zerbitzu eta jarduerak, Fundazioko Barne-Araudien arabera bideratuko dira.

X. XEDAPEN GEHIGARRIAK

1. Interpretazioa

Estatutu hauetako arauak interpretatzea Patronatuaren eskuduntzakoa da.

2. Aldaketa



G 3769601

Estatutu hauek aldatzeko, onesteko bezalako tramiteak bete beharko dira.

3. Gora-beherak

Establezimenduan sor litezkeen arazoak, Estatutu hauetan aurreikusirik ez baldin badaude, Lehendakariak xedatuko lituzke behin-behingo eta Patronatuak behin betikoz.

4. Bategitea. Desagertzea. Likidazioa.

Balizko kasu horiek, 1994ko ekainaren 17an emaniko Fundazioari buruzko Euskal Legeko VI. Kapituluaren finkaturiko xedapenen arabera arautuko dira.

XI. AZKEN XEDAPENAK

1. Fundazioa erregistratzea

Estatutuak onetsita, dagokion erregistroan Fundazioa izenemateko egin behar diren tramiteak beteko dira.

2. Indarrean sartzea

Estatutu hauek indarrean sartuko dira hurrengo tramiteak betetakoan:

- a) Patronatuaren onespena
- b) Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte-Segurantzza Saileko Erregistroan izenematea.

A large, stylized handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke at the bottom.